



Etxean konpostatzeko gida
Guía de autocompostaje

Etxean konpostatzeko gida

Edukiak: Gida honetako edukiak Sanmarko mankomunitateak landutakoak dira.

Diseinua: HARMAN

Argazkiak: Imanol Amas

Eskuliburu hau paper birziklatu eta kloro gabean inprimatua dago. Esta guía ha sido impresa en papel reciclado y sin cloro.



Etxean konpostatzeko gida
Guía de autocompostaje



» konpostarekin barazki osasuntsuagoak lortuko ditugu eta, aldi berean, gure lorategia edertuko dugu

konposta

Konposta egitea sukaldeko eta baratzeko hondakin organikoak ongarri bihurtzea da. Etxeko konposta egiteak esan nahi du prozesu hori etxean bertan egingo dugula, geure lorategian bertan.

Etxeko konposta eginez sukaldeko hondar guztiak birzikla ditzakegu, baita inausketako eta lorategiko hondakinak ere. Horiek transformatuta lurarentzat ongarria izango dugu eta landare, lore, barazki edo zuhaitz osasuntsuagoak izango ditugu.

Konpostatze-prozesua modu eroso eta ordenatuan egiten da konpostagailuan. Sukaldeko hondakinak oso aberatsak dira ongarri gisa erabiltzeko eta lorategiko edo baratzeko beste zenbait material baino lasterrago desagiten dira. Hondakin horiek baliatzea oso garrantzitsua da, denbora laburrean, konpost ona egiteko.

Etxeko konpostarekin hondakin organikoak lekuan bertan baliatzen dira. Hondakinen zirkuitu orokorrean tratatu beharreko hondakin-kantitatea gutxitzen da eta hondakinen garraioan energia aurrezten da.

Etxeko konpostari esker, familia batek bere hondakinen %40-50 gutxitzen du.

el compost

Compostar es transformar los residuos orgánicos de la cocina y del jardín o el huerto en abono. El compostaje doméstico consiste en llevar a cabo este proceso en nuestra propia casa, en nuestro propio jardín.

Con el compostaje doméstico podemos reciclar todos los restos de comida, así como los restos de poda y de jardinería. Esos residuos se transforman en compost para aportar nutrientes a la tierra y dar salud a nuestras plantas, sean flores, hortalizas o árboles.

El proceso de compostaje puede realizarse de forma práctica y ordenada en un compostador. Los residuos de cocina aportan elementos fertilizantes y tienen la ventaja de descomponerse más rápidamente que otros materiales del jardín o el huerto. Aprovechar esos restos es muy importante para obtener un buen compost de forma más rápida.

Con el autocompostaje los residuos orgánicos se aprovechan en el mismo lugar en el que se generan. Se reduce la cantidad de residuos a gestionar en el circuito general y se ahorra energía en el transporte de la basura.

Mediante el autocompostaje se reduce entre el 40-50 % de los residuos de una familia.



oinarrizko 4 arauak

- 1. Konpostagailua zuzenean lurzoruaren gainean jarri.**

Materia organikoa desegitean sortzen den zukua lurrera isurtzen da eta inguruko landarediak, zizareek eta gainontzeko zomorrotxoek baliatu egiten dute. Konpostagailua ez dugu inoiz zementuaren edo adreiluen gainean jarriko.
- 2. Materia hezea eta lehorra bolumen berdinetan nahastu.**

Sukaldeko hondakinak, soropila eta landareen atal samurrak materia hezea dira, eta nitrogeno asko dute. Hostoak, belar lehorra, inausketa-hondarrak, lastoa, txirbila eta zerrautsa atal lehorrak dira, eta karbono asko dute.
- 3. Metatutakoa nahastu.** Nahasten dugunean, goiko geruza irauli behar dugu soilik. Horrela, aireztatu egiten da eta hondakin organikoen geruzak ez dira trinkotzen. Ez da konpostagailu barruko meta guztia irauli behar.
- 4. Hezetasuna kontrolatu.** Meta ez da lehortu behar. Konpostagailua itzalean badago, ez dugu ia inoiz ureztatu beharko. Eguzkitan badago, uztailean eta abuztuan, behin edo bitan ureztatu beharko dugu. Hedatzailearekin ureztatuko dugu, ura ondo banatuko dela ziurtatzeko. Hezetasun egokia ziurtatzeko, konpostagailua itzaletan jartzea gomendatzen da.



las 4 reglas básicas

- 1. Colocar el compostador directamente sobre la tierra.** Los jugos que se derivan de la descomposición de la materia orgánica se drenan y son aprovechados por la vegetación de los alrededores, las lombrices y demás insectos. Nunca instalaremos el compostador sobre pavimento o enladrillado.
- 2. Mezclar volúmenes iguales de materia húmeda y seca.** Los restos de cocina, la hierba fresca y las partes tiernas de las plantas son materia húmeda y muy rica en nitrógeno. Las hojas, la hierba seca, los restos de poda, la paja, las virutas y el serrín son la parte seca, con un alto contenido en carbono.
- 3. Remover la pila.** Cuando removemos sólo tenemos que hacerlo en la capa superior. Se airea la caja y se evita que las capas de los restos orgánicos se compacten. No hay que remover toda la pila.
- 4. Controlar la humedad.** La pila no debe secarse. Si la compostadora está instalada a la sombra no se deberá regar casi nunca. Si está al sol, habrá que regarla una o dos veces en julio y agosto. La regaremos con difusor para asegurarnos de que el agua impregna toda la pila. Con todo, es preferible que esté a la sombra.

» konpostagailua, lorategian eta sukaldetik gertu jartzea da egokiena



konpostagailua

Termo-konpostagailuak konpostatze-prozesua egiteko ontziak dira. Ontzi horiek espazio bertikala baliatzen dute eta konpostatu beharreko materiala txukun gordetzen dute (orain arte, etxeko konposta lurzoruan bertan edo zulo batean egin izan da, denon begi-bistan).

%100 plastiko birziklatuarekin eta birziklagarriarekin eginak daude. Beren diseinuari esker hondakin organikoa ongarri bihurtzen duten mikroorganismoentzako aireztatze egokia bermatzen da. Gainera, airearen zirkulazio onak hezetasun eta tenperatura egokia mantentzen laguntzen du. Horrela, usainik eta eltxorik gabeko deskonposizio lasterra lortzen da, urtarorearen arabera, gutxi gorabehera, 6-9 hilabete bitartean.

Horma termikoek luze irauten dute eta, barruan, klima ezin hobea mantentzea bermatzen dute. Gainera, izpi ultramoreak egonkortzen dituzte eta, denbora luzean, ez da hormetan pitzadurarik sortzen. Konpostagailua txiki geratzen bada, nahikoa da "handitzeko kit-ak" erabiltzea, ez da konpostagailua bera aldatu beharrik.

el compostador

El proceso de compostaje se realiza en los termo-compostadores. Estos recipientes aprovechan el espacio vertical y mantienen la pila de compost recogida (tradicionalmente el compostaje se hacía directamente en el suelo o en un agujero, quedando todo a la vista).

Son de plástico 100% reciclado y reciclable. Su diseño garantiza que en el interior haya una ventilación adecuada para los microorganismos que transforman el residuo orgánico en abono. Además, la circulación óptima de aire regula la humedad y la temperatura en el interior de la pila. De esta manera se consiguen las condiciones idóneas de humedad y temperatura para una buena y rápida descomposición sin olores ni moscas en un periodo de entre 6 y 9 meses, aproximadamente, según la época del año.

Las paredes térmicas son de larga duración e incorporan estabilizadores de rayos UV, que evitan la formación de grietas en las paredes con el paso del tiempo. La caja compostadora permite ampliar el volumen, si se quedara pequeña, sin tener que cambiarla ya que existen "kits de extensión".